

ARIKETA: PERTSONAIAK KOKATU

ADOLF HITLER:

Politikari alemaniarra, nazismoaren sortzailea. Der Führer izendatua (buruzagia), Alemaniako Alderdi Nazional Sozialistaren liderra eta Alemaniako diktadorea, humanitatearen kriminala.

HEINRICH HIMMLER:

Politikari alemaniarra, Gestapoko buru eta Reicheko Poliziakoa, barne-ministroa izan zen. Zigor-esparruen antolatzaile eta oposiziokoen eta bereziki juduen aurkako jazarraldiaren erantzule nagusia.

CHARLES DE GAULLE:

Politikari, idazle eta militar frantsesa. Alemaniaren aurkako gerran, frantsesen errendizioa une batetik bestera gertatzear zela, herrialdea utzi eta Britainia Handira ihes egin zuen; bertatik erresistentzia antolatu zuen.

WINSTON CHURCHILL:

Politikari britainiarra, Bigarren Mundu Gerran lehen ministro eta aliatuen estrategia politiko nabarmena.

ERWIN ROMMEL:

Militar alemaniarra, Hitlerrek Afrikara bidalitako tropen burua (Afrika Korps).

DWIGHT EISENHOWER:

Jeneral eta politikari estatubatuarra, Bigarren Mundu Gerran Normandiako lehorreratzea zuzendu zuen. AEBetako lehendakari izan zen.

BERNARD LAW MONTGOMERY:

Militar britainiarra, Alameingo guduan Rommel garaitu zuen.

VIKTOR MANUEL III:

Italiako errege, 1922-1943 bitartean Mussoliniren esku utzi behar izan zuen benetako agintea, Italiako mugimendu faxistaren garapena erraztuz. Aliatuak Erroman sartu zirenean, abdikatu egin behar izan zuen eta alde egin zuen Italiatik.

BENITO MUSSOLINI:

Politikari italiarra. 1914an politika nazional eta militarren alde azaldu zen. Erromako martxaren ondoren, erregeak bere esku utzi zuen gobernuko agintea. Botere osoa eskuratu, duce bilakatu, eta diktadura absolutua ezarri zuen. Alemaniarekin aliatuz, Erroma-Berlin ardatza osatu zuen. 1940an Italia Bigarren Mundu Gerran sartu zuen, baina porrot militarren ondoren, agintetik kendu zuten. Italiako partisoek harrapatu eta exekutatu egin zuten.

DOUGLAS MacARTHUR:

Militar estatubatuarra. Ozeano Bareko indar aliatuen komandante burua izan zen eta Japoniako okupazio-indarra.

HARRY S. TRUMAN:

Politikari estatubatuarra. Roosevelt hil zenean, AEBetako lehendakari bihurtu zen. Bigarren Mundu Gerrari amaiera eman zioten Japoniaren aurkako bonba atomikoak erabiltzeko agindu zuen.

HIRO HITO:

Japoniako enperadore, AEBek atomo bonben bidez Hiroshima eta Nagasaki suntsitu ondoren, Japoniaren errendizioa sinatu zuen.